

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzari

Udal honek, 2017ko azaroaren 23ko ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman zion dirulaguntzen ordenantzari.

2018ko urtarrilaren 8ko ALHAOn (3. zk.) sartutako iragarkiaren bidez jendaurrean jarri ostean, eta jendaurrean erakusteko aldiaren erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartu da. Horrenbestez, honela idatzita geratu da:

Artziniegako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantza

I. kapitulua. Xedapen orokorrak. Xedea eta aplikazio eremua

1. artikulua

Ordenantza honen helburu da arautzea Artziniegako udalerrian dirulaguntza emateko prozedura, bai eta zenbait xede eta irizpide ezartzea ere herritarrei eta erakundeei berdintasun, gardentasun, norgehiagoka, objektibitate, emakume eta gizonen berdintasun, inklusio eta bereizkeriarik eza printzipioak bermatzeko, udal jarduna osatze aldera.

Jarduerak finantzatzeko laguntzak dirulaguntzak izango dira, eta honakoak izango dituzte arau: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Artziniegako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa.

2. artikulua

Ordenantza honen helburua da Artziniegako Udalak, bere aurrekontu kredituaren kontura, udalaren eskumenpeko eremuan jarduerak egiteko, lehia bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzea.

Hona hemen diruz lagundu daitezkeen jardun lerroak:

– Kultura eta kirol arloa. kulturaren eremuan dirulaguntza jaso ahal izango da arteekin, zientziekin eta letrekin zerikusia duten kultura jarduera guztietarako. Halaber, dirulaguntzak eman ditzake kultura askotarikotasunarekin zerikusia duten denetariko jardueretarako, bai prestakuntzaren arloan (kultura ondarea babestea, hedatzea, sortzea), bai aisialdiaren arloan. Kirol arloan, dirulaguntzak eman ditzake kirol ekitaldiak edo jarduerak eta kirolaren sustapenarekin zerikusia dutenak antolatzeak eragiten dituen gastuetarako.

– Ongizate, lankidetzeta eta garapen arloa. Udalak dirulaguntzak eman ditzake gizarte esku hartzearen alorrean egiten den lanaz informatzeko eta sentsibilizatzeko jardueretarako, gizarte bazterkeria saihesteko jardueretarako, gizarte zailtasuneko egoerei aurre egiteko baliabide pertsonalak sustatzeko eta, orokorrean, pertsona helduei eta laguntza sareak bultzatzen dituzten taldeei laguntzeko.

– Garatzeko bidean dauden herrialdeekiko elkartasunerako proiektuetarako eta herritarrak herrialde horien egoeraz sentsibilizatzeko ekintzetarako dirulaguntzak.

– Euskara arloa. Udalak dirulaguntzak eman ditzake euskara belaunaldiz belaunaldi igarotzea bultzatzeko jardueretarako, euskara gizarte bizitzaren eremu guztietan erabiltzea sustatzeko eta euskaraz sortzea, ekoiztea, trebatzea eta itzultzea sustatzeko.

– Hezkuntza arloa. Prestatzeko, guraso elkarteak mantendu eta funtzionarazteko eta hezkuntzaren sektorerako gainerako jarduerak.

– Museoen arloa. Udaleko museoen jarduera mantentzeko eta dinamizatze jarduerak.

– Osasun arloa. Herritar guztien zein arrisku bereziko herritarren osasuna zaintzeko, babesteko eta hobetzeko jardueretarako dirulaguntzak. Halaber, hezkuntza eta prebentzio helburuak edukita herritar talde jakinen osasuna sustatzen duten ekimenetarako ere eman ditzake dirulaguntzak.

– Bestelakoak. Udalak dirulaguntzak eman ditzake herritar talde jakin baten alde egiten duen jardunaren osagarri diren jardueretarako.

Hauek ez dira diruz lagunduko:

1. Udalak beste laguntza lerro batzuen bidez diruz lagundutako jarduera bereziak.

2. Herriko zaindariaren jaietako egitarauan diruz laguntzen diren berariazko jarduerak.

3. Otordu gastuak, laguntzaile boluntarioei esker onez emandakoak izan ezik, jarduera gauzatzeko gastutzat hartzen baitira, bai eta jardueraren zati direnak eta/edo toki erakundeak berariaz onartuak ere.

4. Elkartearen barne funtzionamenduaren gastuak, ez eta beren jardueren zabalkundea egiteko publizitatearenak ere. Ezta elkartearen web orria mantentzekoak ere, salbu eta toki erakundeak berariaz onartzen baditu.

5. Klubari edo elkarteari jarritako zehapenek ekarritako gastuak.

6. Artziniegako Udalak ordezkariak daukan erakundeei (partzuergoak, mankomunitateak, fundazioak, elkarteak, kuadrillak, eta abar) jarduerak modu orokorrean finantzatzeko egiten dizkien ekarpenak, urtero aurrekontuak finantzatzeko egiten dizkien ekarpen ekonomikoez gainekoak.

7. Euskara ikasteko barnetegietako otordu eta ostatu gastuak.

Hauek jasoko ditu deialdiak:

a) Oinarri arauak eta ALHAO jakinarazten dituen xedapena, baldin eta haien berezitasuna dela-eta deialdian bertan jasotzen ez badira.

Zer aurrekontu kredituri egozten zaion dirulaguntza eta zenbatekoa den deitutako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, eskura dauden kredituen barruan, edo, bestela, zer zenbateko aurreikusten den dirulaguntzetarako.

Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua.

d) Adieraztea dirulaguntza ematea norgehiagoka araubidean egiten dela.

e) Dirulaguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatze bidea.

f) Prozeduraren instrukzioa egiteko eta ebazpena emateko eskumena zein organok duten adieraztea.

g) Eskaerak aurkezteko epea.

h) Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioa.

j) Dirulaguntzak birformulatzeko aukera, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 27. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

k) Ebazpenak administrazio bidearekin amaitzen ote duen adieraztea eta, horrela ez bada, zein organotan jarri behar den gora jotzeko errekurtsioa.

Eskaerak balioesteko irizpideak. Irizpideok ezin dituzte arriskuan jarri objektibotasuna, berdintasuna, gardentasuna, publizitatea, inklusio eta bereizkeriarik eza laguntzak emateko prozeduran, eta beraien haztapenean kontuan edukiko da laguntzarekin egingo dena egokia denez haren helburua lortzeko. Horretarako, hauek hartuko dira kontuan: aurkeztutako proiektuen edo egindako jardueren kalitatea, eskarmentua edo ibilbidea, berdintasuna, bideragarritasuna edo, oro har, dirulaguntzaren helburuarekin egoki jotzen den eta deialdian jasotzen den beste zernahi.

Inola ere ez dira diruz lagunduko sexua dela-eta, zuzenean edo zeharka, baztertzailak diren jarduerak, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakume eta gizonen berdintasunerakoa, betez.

Ez dira diruz lagunduko, halaber, erlijioa, etnia, kultura edo gizarte jatorria edo beste zernahi dela-eta zuzenean edo zeharka baztertzuten duten jarduerak.

m) Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

II. Kapituluak. Printzipio orokorrak

3. artikulua

Dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, emakumeen eta gizonen berdintasuna, inklusioa eta bereizkeriarik eza.
- Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzeko.
- Artziniegako Udalaren baliabideak eraginkor esleitzea eta erabiltzea.

III. kapituluak. Erakunde eta pertsona onuradunen betebeharrak

4. artikulua

1. Pertsona eta entitate hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun:

A. Irabazteko xederik gabeko elkarteak eta kirol klubak, ekainaren 22ko 7/2007 Legean, Euskadiko elkarteenean, edo kasuan kasuko araudian ezarritakoaren arabera behar bezala erregistratuta daudenak eta hauen artean daudenak:

- a) Egoitza udalerrian duten kirol elkarteak eta klubak, udalerrian edo udalerriko herritarrentzat jarduerak egiten dituztenak.
- b) Egoitza udalerrian izan ez arren, udalerrian edo udalerriko herritarrentzat jarduerak egiten dituzten elkarte eta klubak.

B. Udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak, dirulaguntza ematea eragiten duten jarduerak egiten dituztenak.

2. Hauek ez dira onuradun izango:

Azaroaren 17ko 3/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotzen dituen egoeretako batean daudenak.

Deialdian zehaztuko dira dirulaguntza lortzeko beharrezko betekizun bereziak eta haiek egiaztatzeko era.

IV. kapituluak. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

5. artikulua

1. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztutakoa izango da eta ezingo da izan hamabost egun baino gutxiagokoa, deialdiak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaerak Artziniegako Udalari bidaliko zaizkio, deialdiaren eranskinean argitaratutako ereduaren arabera eginda. Eskaera horiek Artziniegako udaletxeko administrazio bulegoetan aurkeztuko dira edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan xedatutako eran.

Eskaerak, hala, ez badituzte betetzen adierazitako baldintza horiek, Artziniegako Udalak erakunde eta pertsona interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak egingdako eskaera bertan behera geratuko da.

2. Nahitaez zehaztu behar da jakinarazpenetarako egoitza.

3. Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikoetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

V. kapitulua. Deialdia ebaztea

6. artikulua

1. Alkatea edo hark eskuordetzen duen zinegotzia izango da organo instrukziogilearen buru eta Artziniegako Udalaren Herritar Batzordearen kideak eratuko dute. Horiek ofizioz egingo dituzte behar beste jarduera ebazpen proposamenerako oinarri izango diren datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko.

2. Zerbitzu teknikoak txosten bat egingo du, deialdian ezarritako irizpideen arabera aurkeztutako eskaerak erkatu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun hurrenkera zehaztuko da, hala badagokio.

Instrukzio organoak, espedientea eta zerbitzu teknikoaren txostena ikusita, behin behineko ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoitua.

Ez dago entzunaldiaren izapidea egin beharrik baldin eta prozeduran agertzen eta kontuan hartzen badira soil-soilik interesdunek adierazitako egitate eta alegazioak. Horrelakoetan, behin betikoa izango da egindako ebazpen proposamena.

3. Organo eskudunak, instrukzio organoak proposatuta, eman beharreko ebazpena emango du, hiru hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan ebazpen adierazirik ematen ez bada, entitate edo pertsona interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

4. Ebazpenean, baiezkoa bada, datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko era, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta bete beharreko baldintzak; gainera, onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan jasotakoarekin.

5. Entitate edo pertsona eskatzaileei dirulaguntza eman ala ukatu zaien jakinaraziko zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegi nagusietan, jakinarazi eta bi hilabeteko epean, bat etorri urriaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoarekin.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123 eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

VI. kapitulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa edo zenbateko hori zehazteko irizpideak

7. artikulua

1. Deialdiek dirulaguntzaren banakako zenbatekoa jasoko dute, dirulaguntzaren xedea kontuan izanda.

2. Ez badago modurik kopuruak zehazteko, deialdiak ezarriko du zein irizpide objektiboren arabera zehaztu, eta, hala badagokio, irizpideak nola haztatu ere ezarriko du dirulaguntzaren xedea kontuan izanda. Besteak beste, kontuan hartu beharko da aurrekonturik dagoen.

3. Eskaeren zenbatekoaren bolumena dirulaguntzarako gorde den gehienezko zenbatekoa baino nabarmen handiagoa bada, deialdiak onuradunen artean hainbanatzeko aukera emango du, salbuespenez eta ezarritako betekizunetan gorabeherarik eragiten ez bada, erakunde edo pertsona onuradunek eskatutakoaren eta dirulaguntzarako gehienezko kopuruaren arteko aldearen ehunekoan.

VII. kapitulua. Dirulaguntzak estal ditzakeen gastuak eta bateragarritasuna

8. artikulua

1. Oinarri hauek araututako dirulaguntzak egindako gastuetarako izango dira, baldin eta dirulaguntzaren xede den jarduera garatzeko egin badira, eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak ezarriko dira deialdi bakoitzean.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta oinarri arauak ezarritako epeetan egiten direnak.

2. Zeharkako zergak berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da, inola ere, onuradunaren jardueraren kostua baino gehiago izan, beste laguntza batzuekin zein administrazio publiko batzuek edo nazioko zein nazioarteko erakunde pribatu batzuek emandako laguntzekin edo bestelako diru sarrerekin batera.

VIII. kapitulua. Ordainketak

9. artikulua

Erakunde edo pertsona onuradunak dirulaguntzaren araudian xedatutakoetarako emandako dirulaguntzarekin egin beharreko jarduera gauzatu dela justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza.

Aurreordainketak eta konturako ordainketak xedatu ahal izango ditu dirulaguntzaren araudiak. Deialdiaren oinarri arauetan ez bada ezer zehazten, ehuneko laurogei aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza ematean eta gainerako ehuneko hogeia dirulaguntza justifikatutakoan.

Deialdiaren ebazpen egunetik aurrera ordainduko da dirulaguntza emateko ebazpenean adierazten den aurrerakina.

Aurrerakinik badago, gainerakoa ordainketa bakarrean ordainduko da, egindako gastuak, behar bezala zerrendaturik, justifikatu ondoren, aurreko paragrafoan aipatutako "aurrerakina" kenduta; justifikazioa aurkezteko epea bukatutakoan amaituko da gastu guztiak justifikatzeko epea.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

Deialdi bakoitzean adierazitako epean aurkeztuko dira dirulaguntza zuritzen duten gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

IX. kapitulua. Dirulaguntza aldatzea

10. artikulua

Onartutako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrelakoetan, diruz lagundutako gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitariora izango da dirulaguntzaren behin betiko gehieneko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatzeak eta, kasu guztietan, edozein entitate publiko edo pribaturen gai bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzeko, emate-ebazpena aldatzea ekarriko du, eta dirulaguntzaren zati bat itzultzea. Dirulaguntza onartu eta gero, hura emateko zio izan ziren gertatzezko inguruabarrak aldatzen badira, Artziniegako Udalak, onuradunaren proposamen arrazoitua aztertuta, aldatu egin dezake dirulaguntza, alkatearen dekretu bidez, organo instrukziogileak hala ebatzi ondoren.

X. kapitulua. Justifikazioa

11. artikulua

1. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek, deialdia egin zeneko urtearen hurrengoko urtarrilaren 31 baino lehen, deialdian beste epe bat ezartzen ez bada, instrukzio organoaren aurrean justifikatu beharko dute dirulaguntza emateko ekitaldian aurreikusi ziren helburuak lortu eta ezarritako baldintzak bete dituztela.

2. Oro har, onuradunaren justifikazioa gastu frogagiridun justifikazio kontua izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudiaren 72. artikuluari jarraiki.

a) Diruz lagundutako jarduera edo jarduerak egiteagatik eragindako gastuen justifikazioa, behar bezala zerrendatuta, hau da, dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartutako gastu aurrekontuaren zenbateko osoa adina diruz lagundutako gastuen justifikazioa. Horretarako, dagozkion fakturak aurkeztuko dira edo lege merkataritzan balio edo administrazio eragin baliokidea duten agiriak, jatorrizkoak zein kopia konpultsatuak. Deialdiaren oinarri arauetan hala ezartzen bada baino ez da onartuko kopia konpultsatua.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea, beraren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, beraren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Era berean, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak, PFEZeko (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako ordainketei dagokienez.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren erakunde onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
- Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Jatorrizko bankuko kontu laburpenak, posta arruntez jasoak.

- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituena.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
- Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune, autobide, bidaiak txartel eta abar) edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.

Urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikulua betetzeko, ez dira onartuko 2.500 euro (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan) edo gehiagoko eragiketen eskudiruzko ordainketak.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, hau da, 2.500 euro edo horren kontrabalioa kalkulatzeko, ondasun ematea edo zerbitzu ematea zenbat eragiketa edo ordainketatan zatitu den, horien guztien zenbatekoak batuko dira.

Dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartu den gastuen aurrekontu osoa ez bada justifikatzen, dirulaguntza jaitsi egingo da gastu txikienaren proportzioan.

b) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren diru sarrera eta gastuen balantzea.

c) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren diru sarrera eta gastuen memoria.

3. Diruz lagundu daitezkeen jardueraren xedea unitate fisikoen edo beste parametro batzuen arabera neur daitezkeen jarduerak egiaztatzea bada, moduluka justifikatu ahal izango dira gastuak, salbuespenez, dirulaguntza eman izanaren arrazoiak modu frogagarrian egiaztatuta, eta hala badagokio, dirulaguntzaren justifikazioa dirulaguntzaren xedeari aplikatuko zaio.

Jarduera memoria eta ekonomia memoria aurkeztuko dira dirulaguntza justifikatzeko. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudiaren 78.2 artikuluan xedatutakoak jasoko ditu ekonomia memoriak.

4. Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, justifikatzeko modu gisa erabili ahal izango dira faktura elektronikoak.

Gainera, faktura elektronikoak aurkezten badira, Factura-e eta E4ktur estandarrei egokitu beharko zaie haien formatua. Sinadura elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztuz gero, 11/2007 Legeak, urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuarekin, administrazio elektronikoen esparruan elkarreragingarritasun eskema nazionala arautzen duenarekin, bat etorritik, xedatutako @firma plataformaren bidez egindako ziurtagiriak onartuko dira (http://www.dnielectronico.es/seccion_aapp/rel_autoridades.html).

5. Adierazitako epea igaro eta lehen aipatutako agiriak aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira, eta "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

XI. kapitulua. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

12. artikulua

Beste administrazio batzuek zein nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza batzuk jasotzea onartu ahal izango du deialdiak, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundutako jarduera baino gehiago edo ez badu eragiten eskatutako finantzazioa jaisterik, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera aurrera ateratzeko.

XII. kapitulua. Artziniegako Udalaren babesa

13. artikulua

Dirulaguntzen onuradunek argi eta garbi adierazi beharko dute egitarauetan, iragarpen karreletan, argazkietan eta idatzizko zein entzunezko materialean Artziniegako Udalaren laguntza

izan dutela. Adierazpen horretan Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili behar izango dira eta lehentasuna euskarari emango zaio.

Erakunde onuradunak hizkuntzaren erabilera ez sexista eta inklusiboa bermatu behar du agiri guztietan, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, betetzeko. Aipatutako Legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da aniztasuna sexueta, roletan eta genero identitateetan.

XIII. kapitulua. Dirulaguntza itzultzea

14. artikulua

Era berean, jasotako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira 38/2003 Legeak, dirulaguntzenak, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak –azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia, dirulaguntzena, onartzekoa– xedatzen dituzten egoeretan.

XIV. kapitulua. Egiatzatzea

15. artikulua

Artziniegako Udalak, dirulaguntza izapidetzen duen unitateak proposatuta, deialdia garatzeko egoki jotzen diren ebazpenak emango ditu, eta behar diren ekintzak egin ahalko ditu onuradunei datuak eskatzeko, eta ziurtatzeko egiazkoak direla aurkeztutako datuak eta bete dela oinarrietan araututakoa. Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute Artziniegako Udalak eskatzen dizkien datu eta agiriak emateko, egindako jardueren gainean.

XV. kapitulua. Erantzukizunak

16. artikulua

Erakunde onuradunek beren gain hartzen dute programa edota jarduera egitearen erantzukizuna, bai eta hura garatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baimenak eskatzea ere.

XVI. kapitulua. Interpretazioa

17. artikulua

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortuko balitz, Artziniegako Udalaren Kulturako Zerbitzu Teknikoak ebatziko luke.

XVII. kapitulua. Errekurtsoak

18. artikulua

Oinarri hauen zein honen ondorioz sortutako administrazio egintza ororen aurka egin daiteke, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidea-renak, ezarritako kasuetan eta eran.

XVIII. kapitulua. Araudi aplikagarria

19. artikulua

Oinarri hauetan xedatu ez denerako, ondokoak hartuko dira kontuan: azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, dirulaguntzenaren, arautegia onartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidea-rena; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

XIX. kapitulua. Indarrean sartzea

20. artikulua

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Artziniega, 2018ko martxoaren 6a

Alkatea

IÑIGO GÓMEZ UNZUETA